

Langage / lecture

Du

au

Domaine concerné : Domaine de la communication
S'initier au monde de l'écrit.

Raconter et lire un conte.

Objectifs : - Ouvrir et nourrir l'imaginaire des enfants.

- Leur faire prendre conscience des structures propres aux textes narratifs, par imprégnation.
- Acquérir du vocabulaire, des tournures syntaxiques et les réinvestir.

Nombres d'enfants : le groupe classe.

Durée : plusieurs fois 15 minutes.

Matériel : livre ADIXKIDE ONAK.

a) **Première activité** : lire le conte.

Objectif : l'enfant sera capable de comprendre un court récit.

Lire le conte.

Déroulement : * L'enseignant fait le choix de montrer les images au cours du déroulement de l'histoire. A travers la lecture :

- l'enfant découvre le plaisir de la lecture du livre et du texte ;
- il nourrit son imaginaire ;
- il s'imprègne des structures narratives par la prise en compte des connecteurs temporeux ;
- il rencontre des mots nouveaux, des tournures syntaxiques parfois complexes et éprouve du plaisir à les dire.

* Le conte se déroule, porté par la voix de l'enseignant qui adopte un débit lent, afin que tous les enfants puissent suivre le fil du récit et puissent réagir au fur et à mesure.

* Les enfants prennent des repères sur les images, reformulent au fil de l'histoire ce que dit le maître. Ils s'imprègnent des structures du conte par cette répétition.

* L'enseignant relira plusieurs fois le conte en s'en tenant fidèlement à ce qui est écrit.

b) **Deuxième activité** : Faire raconter par les enfants.

Objectif : l'enfant sera capable de prendre la parole pour répondre à une demande.

Déroulement : * L'enseignant propose aux enfants de raconter eux-mêmes l'histoire que maintenant ils commencent à bien connaître.

* Lorsque le récit se perd, tous les enfants de la classe peuvent apporter leurs contributions.

* L'enseignant veille à ce que les tournures du récit, une syntaxe correcte et le vocabulaire précis employé dans le texte soient repris ; au besoin, il assure lui-même une relecture du passage délicat que les enfants n'ont pas bien mémorisé.

* Les enfants sont amenés à s'appropriier le conte : ils en connaissent le fond, ils en retiennent la forme, non seulement au niveau des formules rythmiques et fascinantes mais aussi au niveau de la structure interne du récit.

* Certains mots sont incompris mais cela n'a pas d'importance, ils sont portés par le contexte ou leur musicalité : ils exercent un pouvoir en eux-mêmes et dans leur mise en réseau avec d'autres mots.

**Evaluation : - Peuvent-ils répéter l'histoire en suivant l'ordre des images du livre ?
- Emploient-ils des mots de vocabulaire et des tournures de phrases empruntés au récit fait par le maître ?**

Activités complémentaires

a) Le vocabulaire et formes verbales

Objectifs : * L'enfant sera capable de mémoriser, reproduire et réinvestir un vocabulaire précis.

► Elurra, euria, burukoa, lepokoa, berokia, galtzerdiak, galtzak, trikota, atorra, jupa (gona), arropa, zapatak, botak, xapinak, odeia (lainoa), ximixta, paisola, kalerna (orzantza), negua, udaberria, eguzkia, pastenarrea, arbia, aza, belarra, zaldia, pottoka, lapina, orkatza, oreina, ardia, aztarnak.

► Hotztua, berotua, gosetua.

* L'enfant sera capable de mémoriser, reproduire et réinvestir des formes verbales simples.

- Nik hotz dut,
- Hotztua naiz,
- Nik bero dut,
- Berotua naiz,
- Ez du ...ik,
- Elurra ari du,
- Berotuko zaitut,
- Gose dut, gose naiz,
- Gosetua naiz.

b) Chants et comptines

Objectifs : l'enfant sera capable de dire de mémoire des textes courts et d'interpréter une chanson simple :

Comptine : «Elurra»

Chant : « Negua » «Zarta zarta eskuak »
« Elurra teilatuan»
« Sukaldeko leihotik »
« Tzunpatzun »

c) Jeux liés au conte

1. Puzzles

Objectif : l'enfant sera capable de reconstituer un puzzle.

2. Jeu de vocabulaire

Objectif : l'enfant sera capable d'identifier des mots familiers et de prendre conscience de la correspondance entre l'oral et l'écrit.

Langage / production de textes	Du	au
<u>Domaine concerné</u> : domaine de la communication S'initier au monde de l'écrit.		

Organiser les étapes d'un récit

Objectif : savoir réorganiser chronologiquement 4 ou 5 étapes du récit.

Nombre d'enfants : groupe classe puis groupe en atelier.

Durée : plusieurs fois 15 à 20 minutes.

Matériel : livre « Adixkide onak »

Déroulement :

* Le maître met à la disposition des enfants 4 images de l'histoire. Ces 4 étapes sont choisies par l'enseignant de manière à mettre en évidence les changements d'état des situations : éléments déclencheurs, amorce du récit, chute du récit...

* Les 4 images sont placées dans le désordre au tableau : les enfants sont amenés à manipuler ces images pour reconstituer le récit.

* Un échange langagier a lieu au sein du groupe, autour des images, pour retrouver le bon ordre.

* Une fois l'ordre chronologique établi, les enfants dictent à l'adulte le texte à replacer sous chaque image : l'enseignant écrit sous la dictée des enfants ce qui est énoncé.

Evaluation :

Les enfants réorganisent-ils chronologiquement les étapes du récit ?

Les enfants réinvestissent – ils le vocabulaire et la syntaxe étudiée ?

ELURRA

EURIA

LAPINA

ORKATZA

BURUKOA

LEPOKOA

ESKU

LARRUAK

BEROKIA

BOTAK

PAISOLA

HODEIA

LANOA

XIMIXTA

GALTZERDIAK

GALTZAK

ATORRA

TRIKOTA

GONA

ARROPA

XAPINAK

ZAPATAK

NEGUA

UDABERRIA

POTTOKA

ZALDIA

OREINA

ARDIA

PASTENARREA

AZA

BELARRA

ARBIA

AZTARNA

Adixkide onak

1) Elurra ari du. Xuri xuria da kanpo guzia. Lapin tiki horrek ez du fitxik jateko. Deus. Atea idekitzen du....iiii eta erraiten du :
- Brr, zer hotza !

2) Lapin tikia janariaren bilat joaiten da. Eta badakizue zer aurkitzen duen ?

Bi pastanarre, gorri gorriak, hola handiak, elurraren azpian.
Kraka, kraka, kraka, bat jaten du.Orain, ez da gose. Asea da.
Pentsatzen du :

-Holako hotzarekin, holako elurrarekin, zaldi tikia,ene auzoa, hain segur gose da. Beste pastanarrea eramanen diot.

3) Lapin tikia, laster eta laster zaldi tikiaren etxerat joaiten da.

- Banba ! banba ! zaldi tiki hor zira ?

Atea idekitzen du.....iiii

Eta erraiten du :

-Oh, zaldi tikia ez da hor !

Orduan pastanarrea mahain gainean uzten dio eta joaiten da.

4) Elurra ari du. Xuri xuria da kanpo guzia. Zaldi tiki horrek ez du fitxik jateko. Deus.

Zaldi tikia janariaren bilat joaiten da. Eta badakizue zer aurkitzen duen ? Arbi eder bat, xuri ubela, elurraren azpian.

Kraka, kraka, kraka, arbia jaten du.

Orain, Ez da gose. Asea da. Etxerat itzultzen da.

5) Etxean sartzen da, eta badakizue zer aurkitzen duen ? pastanarre bat, mahain gainean.

- Nork ekarri daut hori ? bai segur naiz lapin tikiak ekarri duela. Bere aztarna tikiak ikusi bait ditut kanpoan. Zoin maitagarria den ! Bainan ni ez naiz gose orain !

- Holako hotzarekin, holako elurrarekin, ardi beltza ene auzoa hain segur gose da ! Pastanarre hau eramanen diot.

6) Zaldi tikia, lau hazka, lau hazka, ardi beltxaren etxerat joaiten da.

- Banba ! banba ! Ardi beltz hor zira ?

Atea idekitzen du.....iiii

Eta erraiten du :

-Oh, ardi beltz ez da hor !

Orduan pastanarrea mahain gainean uzten dio eta joaiten da.

7) Elurra ari du. Xuri xuria da kanpo guzia. Ardi beltz horrek ez du fitxik jateko. Deus.

Ardi beltza janariaren bilat joaiten da. Eta badakizue zer aurkitzen duen ? Aza gorri bat, elurraren azpian.

Kraka, kraka, kraka, aza hostoz hosto jaten du.

Orain, Ez da gose. Asea da. Etxerat itzultzen da.

8) Etxean sartzen da, eta badakizue zer aurkitzen duen ? Pastanarre bat, mahain gainean.

- Nork ekarri daut hori ? Bai segur naiz zaldi tikiak ekarri duela. Bere aztarnak ikusi bait ditut kanpoan. Zoin maitagarria den ! Bainan ni ez naiz gose orain !

- Holako hotzarekin, holako elurrarekin, orkatza ene auzoa hain segur gose da ! Pastanarre hau eramane diot.

9) Ardi beltza, trost eta trost, orkatz tikiaren etxerat joaiten da.

- Banba ! banba ! Orkatz tiki hor zira ?

Atea idekitzen du.....iiii

Eta erraiten du :

-Oh, orkatz tiki ez da hor !

Orduan pastanarrea kadiraren gainean uzten dio eta joaiten da.

10) Elurra ari du. Xuri xuria da kanpo guzia. Orkatz tiki horrek ez du fitxik jateko. Deus.

Orkatz tikia janariaren bilat joaiten da. Eta badakizue zer aurkitzen duen ? Belar floka bat, elurraren azpian.

Kraka, kraka, kraka, belarra jaten du.

Orain, ez da gose. Asea da. Etxerat itzultzen da.

11) Etxean sartzen da, eta badakizue zer aurkitzen duen ? Pastanarre bat, kadiraren gainean.

- Nork ekarri daut hori ? Bai segur naiz ardi beltzak ekarri duela. Bere ile puxka bat galdu bait du hemendik ateratzean. Zoin maitagarria den ! Bainan ni ez naiz gose orain !
- Holako hotzarekin, holako elurrarekin, lapin tikia ene auzoa hain segur gose da ! Pastanarre hau eramanen diot.

12) Orkatz tikia, salto saltoka, lapin tikiaren etxerat joaiten da.

- Banba ! banba ! lapin tiki hor zira ?

Atea idekitzen du.....iiiiii

13) Eta badakizue nor aurkitzen duen ?

Lapin tikia, ohean, goxoki lokartua.

Polli-polliki, pastanarrea ohearen ondoan uzten dio. Momentu berean, lapin tikia iratzartzen da.

- Holako hotzarekin, holako elurrarekin, segur naiz gose zirela ! Tori pastanarre hau.
- Milesker handi bat orkatz tiki !

14) Horrela, zalditik ardira, arditik orkatzera, pastanarrea berriz lapin tikiaren gana itzuli da.

A! Adixkide on onak !

Programme : 5ème unité « Negua »

Déclinaison : nouvelle ► Norena

Structures : structure négative ► (ez da...rena)

Vocabulaire :

► Elurra, euria, burukoa, lepokoa, berokia, galtzerdiak, galtzak, trikota, atorra, jupa (gona), arropa, zapatak, botak, xapinak, odeia (lainoa), ximixta, paisola, kalerna (orzantza), negua, udaberria, eguzkia, pastenarrea, arbia, aza, belarra, zaldia, pottoka, lapina, , berotua.

► Hotztua, berotua, gosetua.

* L'enfant sera capable de mémoriser, reproduire et réinvestir des formes verbales simples.

- Nik hotz dut,
- Hotztua naiz,
- Nik bero dut,
- Berotua naiz,
- Ez du ...ik,
- Elurra ari du,
- Berotuko zaitut,
- Gose dut, gose naiz,
- Gosetua naiz.

Hizkuntz jokoak :

3 unitatea Negua

Gramatikako edukinak :

► **Norena, noren**

Deklinabidea eta aditza:

Jokoa : norena

- 1) Haurrak borobilean jarririk dira. Erdian, berokiak (edo beste jantzi bat) metaturik emaiten dituzte.

Erakasleak : Norena da beroki hau ?

Edo Hau, noren berokia da ?

Haurrak : Nerea da (edo Patxirena da, edo Patxiren berokia da).

- 2) **Ezezko formak** : joko bera egin.

Erakasleak : Beroki hau Peiorena da ?

Haurrak : Ez da Peiorena.

- 3) **Plurala** : Joko bera egin haurren zapatak hartuz.

TZUNPATZUN

Dar ! dar ! brrr ! brrr !
Ja, Jo, Ja ! toko toko toko !
Galtzerdiak oinetan,
Lepokoa lepoan,
Eskularruak,
Buruko gorri buruan !
Korru, korru korruan
Eman eman eskuak
Dantza egin dezagun
Tzunpa tzunpa tzun !
Tzunpa tzunpa tzun !

ELURRA TEILATUAN

Elurra teilatuan
Zakua lepoan
Ibili beharko dugu
Aurtengo neguan riau !

Elurra teilatuan
Zakua lepoan
Ibili beharko dugu
Aurtengo neguan riau !
Riau, riau, riau riaupataplau
Hau dek umorea
Utzi alde batera
Eskualdun jendea.

Riau, riau, riau riaupataplau
Hau dek umorea
Utzi alde batera
Eskualdun jendea !

ELURRA

Kanpoan hotz
Barnean bero
Hemen dago
Negua oraino.

Kanpoan hotz
Barnean bero
Hemen dago
Miren goxo goxo.

SUKALDEKO LEIHOTIK

Sukaldeko leihotik begira
Haur ttipi bat so dago kanpora.

Pentze, baratze oihan mendiak,
Ikusten ditut xuri xuriak.
Elurrez dira estaliak.